

Rosa Martin Salvaris

EHUKO IRAKASLEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN ADITUA

Bringmarianhome.com

Maiatzaren 3an lau urte betetzear zegoen ume bat desagertu zen Portugalgo hondartza baten ondoan. Orduetik hona hamar milaka haur desagertu da Bombay edo Sao Pauloko kaleetan. Gibel garbia, medula zuria edo begi politak zituzten umeak. Baina nik horietako bakar batenak ditut buruan sartuta. Telebistak, zerbitzu publikoaren funtzioari eutsiz, lagundu nahi izan du desagertutako umeak topatzen, eta *findmadeleine.com* iragarri du etengabe.

Maiatzaren 3 aldera ere irten zen Errumaniatik emakume izena zuen 44 urtetako gizona, emaztea eta bi alaba ondoan. Hara eta hona ibili ziren udan, besteek hitza jaten zutelako, jan ezinik. Marian Mirita behin bakarrik ikusi dut telebistan, soinean zeraman kamisetari sua eman eta kamara baten aurrean kiskaltzen hasi zenean. Irudi ikaragarriak, latzak... irudiak? Laztura handiagoa eragin zidaten emaztearen garrasiek, betirako kolpatu ninduen Marianen beraren gorputz biluziak, bere harridura begiradak, han bakarrik inolako babesik gabe, mugikorrekin argazkia ateratzen zion jendetzaz inguratuta.

Bringmadeleinehome.com bataiatu zuten beranduago Maddie bilatzeko webgunea, komunikazio-arduradun berriaren gomendioz. Eta bertan salgai, 0,10 librako posterrak, 10eko



INIGO AZKONA

kamisetak (6,5 umeentzakoak), edo 2ko esku-turreko horiak; eta aldiro-aldiro eguneratutako bloga *Gerry's diary*, aitak idatzitakoa bailitzan, komunikazio-aholkulariak asmatutako egunkaria. Eta nola dirua eman, *PayPal* Interneteko sistema segurua erabiliz. Orrialde bikaina, garbia, goxoa; duen orban bakarra Madeleineren begian ageri dena, eta hori ere diseinurako ederto aprobetxatua. Laura Bush, David Beckman eta Aita Santua, besteak beste, mintzatu dira kamara bati begira Maddie etxera eramatearren, baina oraindik Wikipediara baino ez dute bidali.

Etxera itzuli nahi zuen Marian Miritak ere. Baina horretarako behar zituen 400 euroak gainditu ezinezko azken txanpa bilakatu ziren. Duela aste batzuk ospitalean bakarrik hil denean, familiak Errumaniarako bidea hartua zuen. Lerro hauek idazten ari naizela, Alacanteko deposito batean jarraitzen du Marianen gorpuak. Etxerik ezean, etxera itzuli ezinik.

Irudi ikaragarriak, soinu itzelak, istorio interesgarria, gazteleraz hitz egin zezakeen protagonista... bazuen telebistak albiste hau gaia bihurtzeko haina. Baina nik behin bakarrik ikusi dut telebistan Marian Mirita. Kate eta Gerry MacCan-ek bakarrik dakite nik zenbat aldiz ikusi beharko ditudan. ■



Lerro hauek idazten ari

naizela, Alacanteko

deposito batean jarraitzen

du Marianen gorpuak.

Etxerik ezean,

etxera itzuli ezinik



TXANDAN

Joxerra Garzia



Beste argudiorik ezean, ohikora jo ohi dugu berez ezin onartuzkoak direnak zurrizteko, bide batez ohikoa ohikoago bihurtzen dugularik.

Horrela sendotutako ohitura baten eta aldarrikatzen ditugun balioen artean gatazka sortzen denean, biderik erosoena aukeratzen dugu sarri: balioak aldarri hutsen linbora bidali, eta ohitura zaharrari eutsi.

Unibertsitatean, esaterako, ohikoa da tesia aurkezten duen doktoregaiak (jeneralean lan-poltsen nomada, curriculumez aberats eta soldataz pobreak) bazkaria —eta ez nolanahikoa— ordaindu behar izatea epailei (jeneralean lanpostu finko eta ondo ordaindutako baten jabe

Ohikora ohitu

direnei). Irun-Hondarrribian, gizonak bezain burugabe izateko (alardean bada ere, soldadu izan nahi izateko) eskubidea ukatzen zaie urtero emakumei. Barre egiten hasita, ohikoa da gu baino ahulago direnen kontura barre egitea.

Ohikora ohituta, ohikoa gizentzen dugu, ohitura ohikeria bihurtzen. Bada, ordea, bestelako biderik ere. Urrutira gabe, ohikoari *ohizkoa* esaten ohituta ginen oraindik orain, baina, hala behar eta, ohizkoa baztertu eta ohikora ohitu gara oso denbora laburrean.

Diogunaren duin izan nahi badugu, hobe genuke, hizkuntzan eta bestetan, ohikeriaren herdoila astindu eta ohiturak garaiz berritzen ikastea. ■